

2020

DK memoria

**Jaialdia
KORNER**





Benjamín Prado eta Manuel Vilas.

Donostia Kulturak eta Real Sociedad Fundazioak antolatutako **Korner** jaialdiaren hirugarren edizioaz gozatzeko aukera izan zen **otsailaren 9tik 15era bitartean**. 2018an hasi zenetik, jaialdia erreferentzia bihurtu da kirol nagusiak diziplina artistikoekin eta eztabaida sozialekin dituen loturak aztertzeako orduan.

Kornerrek publiko guztientzat pentsatutako programa zabala eta diziplina anitzekoa eskaini zuen, eta kulturako eta futboleko izen nabarmenak izan ziren bertan: **Manuel Vilas, María Botto, Benjamín Prado, Manu Lareo, Santiago Cañizares, Jose Luis Garci, Maddi Torre, Roberto Olabe, Imanol Agirretxe, Luis Chillida, Mikel Alonso edo Judith Jauregui**, besteak beste.

Ernest Lluch Kultur Etxea eta **Antzoki Zaharra** izan ziren jaialdiaren egoitza nagusiak eta **1.600 pertsona baino gehiago bildu ziren** solasaldiez, proiektioez, bakarriketez, antzerkiaz, bertsoez eta erakusketez gozatzeko.

Realak eta Athletic Clubek elkarren aurka jokatzeko duten bakoitzean Antzoki Zaharrean antolatzen den **Bertso Derbi** tradizionalarekin hasi zen Korner. Hitzazurre dibertigarria izan zuen ekitaldiak jaialdiaren eskutik: **Monologolak, Zuhaitz Gurrutxagak, Mirari Martiarenak** eta **Idoia Torregaraik** antzeztutako monologoak umore klabeak.

2020ko zita berezia leku pribilegiatuan iritsi zen: **Chillida Leku Museoa**. Bereziki atezainaren figura jorratu zuen edizio batek ezin

zuen utzi pasatzen Eduardo Chillidaren obrak futbolarekin duen harremanaz hitz egiteko aukera. Jakina denez, artista donostiarra Realeko atezaina izan zen gaztetan. Esperientzia horrek arrasto sakona utzi zuen Chillidaren espazioaren kontzepzioan.

Azkenik, ez da ahaztu behar Kornerren baitan **Etxe txuri-urdinak** erakusketa inauguratu zela Ernest Lluch Kultur Etxean, Realak sorreratik izan dituen hainbat joko-zelaietan oinarritua. Hirugarren edizio honetako solasaldi guztiak jaialdiaren www.korner.eus webgunean daude eskuragarri, baita gonbidatu batzuei grabatutako Korner galdetegiak ere, euren futbolarekiko ikuspegi pertsonalak jasotzen dituztenak.